



# ERIZAINTZAREN OINARRI TEORIKOAK

(1.Kurtsoko irakasgaia)

## Irakaskuntza Gida

**Irakaslea:** M<sup>a</sup> Isabel Elorza

## Edukien deskribapen laburra

Erizaintzako zainketak eta erizaintzaren eraikuntza zientifikoa justifikatzen duten egoera historikoak, psikologikoak eta soziologikoak aztertu gaur egungo egileek eta eskolek egindako ereduak eta teoriak bitartez.

## Garatu beharreko gaitasunak

- 1. Gaitasun Zehatza:** Testuinguru soziokultural bakoitzean, Erizaintzaren garapenean esku hartu duten faktore historikoak eta garaikideak ezagutzea, zainketen garapena eta gaur egungo praktika profesionalaren egoera ulertze aldera.
- 2. Gaitasun Zehatza:** Erizaintza-diziplinaren oinarri teorikoak ulertu eredu adierazgarrienen bitartez.
- 3. Gaitasun Zehatza:** Virginia Hendersonen zainketa ereduak garatzea, praktika profesionalan ikuspuntu diziplinatu eta profesionala barneratu ahal izateko.

**Zeharkako gaitasuna:** Egiten duenari esanahia ematea eta irtenbide egokiak bilatzea gogoetazko pentsamenduaren bitartez eta generoaren ikuspegia kontuan izanez, norberaren eta besteen jarduerak arrazoitze (1. maila: bideratuta).

## Ikasketa emaitzak

- 1. Emaitza:** Sorreratik profesionalizatorainoko zainketen garapen prozesua ezagutarazi.
- 2. Emaitza:** Gizakiaren bizi-zikloko Oinarrizko Beharren balorazioa egin Virginia Henderson-en ereduak aplikatuz
- 3. Emaitza:** Egoera jakin batean parte hartzen duten ideiak, jarrerak, emozioak eta jokamoldeak aintzat hartzen ditu; norberak ondorioak formulatzen ditu eta hobetzeko aukerak edo ekintzak aurkezten ditu, generoaren ikuspegia kontuan izanda (bideratuta).

## Practicumarekin lotutako ikasketa emaitzak

- Erabiltzailearen iritziarekiko, sinesmenarekiko eta balorearekiko errespetua erakutsi, sexuagatik, arrazagatik, kulturagatik edo erlijioagatik balio-judiziorik eta bereizketarik egin gabe.
- Osasun esparrua ezagutu eta taldekideen rol desberdinak identifikatu.

## Gaiak

### I. UNITATE TEMATIKOA: Zainketen jatorria

- 1.1. Zainketak herri primitiboetatik XIX. mendera arte.
- 1.2. Erizaintzaren eraketan egondako eraginak: XX. Mendea Espainian.
- 1.3. Erizaintzaren profesionalizazioa.

### II. UNITATE TEMATIKOA: Erizaintzako zientzia eta diziplina

- 2.1. Erizaintzaren pentsabidea eta zainketen praktika
- 2.2. Erizaintzako metaparadigma: Pertsona, Ingurua, osasuna, rola
- 2.3. Erizaintzako teorien eta ereduen sailkapena eta garapen laburra

### III. UNITATE TEMATIKOA:

#### Gizakion Beharrak eta Erizaintzako zainketetarako aplikazioa.

- 3.1. Beharraren kontzeptua
- 3.2. Gizakien beharren ezagutza teorikoa
- 3.3. Virginia Hendersonek proposatutako 14 beharren garapena

## Irakaskuntza metodologia

ERIZAINZAREN OINARRI TEORIKOAK: 6 kreditu			
Irakaskuntza mota	Aurrez aurreko orduak	Aurrez aurreko ez diren orduak	Orduak guztira
Magistrala	56	50	106
Mintegia	19	25	44
<b>Guztira</b>	<b>75</b>	<b>75</b>	<b>150</b>

## Jarduera metodologikoak

- Irakaslearen ahozko azalpenak.
- Landutako kontzeptuak banaka edo/eta taldeka aztertzea, laburtzea, asimilatzea eta aurkeztea.

## Ikaslearen ebaluazioa

Irakasgaiaren irakasleak proposatzen duen etengabeko ebaluazioa ondorengoa da:

1. Gaitasun zehatzak: Notaren % 30a
  2. Gaitasun zehatzak: Notaren % 30a
  3. Gaitasun zehatzak: Notaren % 30a
- Zeharkako gaitasunak: Notaren % 10a

Honako hauek ezinbesteko baldintzak izango dira irakasgaiaren azken ebaluazioa egiteko:

- Azken proba gainditzea
- Banakako zein taldekako praktika guztiak aurkeztea
- Ikasgelako praktiketarako aurreikusitako ordu guztietara joatea
- Ikaskuntzari jarraipena egiteko jarritako tutoretza-ordu guztietara joatea
- Gaitasun guztiak gainditzea

Ikasleren batek, graduako eta lehen eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegiari jarraiki, justifikatutako arrazoi bat dela eta, irakasgaiaren irakaslegoak proposatzen duen etengabeko ebaluazioa ezingo balu bete, ahalko luke bukaerako proba bakar baten bidez irakasgaia ebaluatu. Proba bakar horren bidez, irakasgaiko ezagutzak eta gaitasunak bereganatu dituela egiaztatuko luke. Proba bakarra arlo teorikoa eta praktikoa landu ahal izateko azterketa izango da.